

**BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA  
HEDABIDEEN AZPIBATZORDEA**

Batzarraren AKTA.

2017ko maiatzaren 31 – 10:30 h

BERTARATUAK

**Bilboko Udala**

Jone Unzueta (Euskara eta Hezkuntzako zuzendaria)

Marijo Arrieta (Euskarako zuzendariordea)

Izaskun Llona (Komunikazio arduraduna)

**Hedabideak**

*Berton eta Prest.* Lur Mallea

*Bilbo Hiria Irratia.* Ane Zabala

*Bizkaia Irratia.* Libe Agirre eta Javier Onaindia

*Onda Cero Bilbao.* Irune Elorriaga

**Idazkaritza teknikoa**

*Bilbao Metropoli-30.* Idoia Postigo

*Labayru Fundazioa.* Lander Solozabal

GAI-ZERRENDAA

1.- AURREKO BILERAREN (2017-03-09) AKTA ONARTU.

Aurreko bileraren **akta onartu da** aho batez.

2.- BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO BILERAREN BERRI EMAN.

Marijo Arrietak labur-labur esan du **bilera honen helburua** dela Aholku Batzordearen aurreko bilerakoak azaltzea eta hemendik aurrerakoak zehaztea, baina horren aurretik egoki ikusten dutela (bileretan beti ez dagoelako jende bera eta hirugarren bilera delako) orain arteko ibilbidea gogoraraztea.

Lander Solozabalek **orain arte egindako bidea** azaldu du:

Euskararen Aholku Batzordea 2016ko otsailean sortu zenetik, lau bileran egin ditu, eta horietan, besteak beste, hauek zehaztu eta finkatu ditu: osaera, helburuak, funtzionamendua, kronograma, arautegia, ESEPen azalpena, bisio estrategikoa definitu eta hiru azpibatzerdeak sortu.

Aholku batzordearekin batera, hiru azpibatzerdeek (euskaltegia, euskara-elkarteena eta hedabideena) bina bileran egin dituzte (hau dugu hirugarrena), bisio estrategikoa adostu eta helburuak eta ekintzak zehazteko.

Aholku Batzordea eta azpibatzerdeak lotuta doaz eta koordinatuta daude: batean egiten, proposatzen eta zehazten dena, bestera eramaten da, eta alderantziz.

Gaurko bilerara etorrita, gogoratu ditu azpibatzerde honen **azken bileran (martxoan) eman ziren pausoak**. Bertan helburu eta ekintza zehatzak proposatu, adostu, bateratu, zerrendatu eta bozkatu ziren. Horren ostean, ekintza horiek -eta beste azpibatzerdeetakoak ere- Aholku Batzordera eraman ziren (apirilean), eta lau multzotan banatu ziren: soilik euskaltegienak zirenak, soilik euskara-elkarteenak zirenak, soilik hedabideenak zirenak, eta azpibatzerde batean baino gehiagotan agertu zirenak (zeharkakoak edo transbertsalak).

Horrez gain, aparteko multzoan zehaztu ziren Udalak berak bideratu behar dituen ekimenak.

### 3.- AUKERATUTAKO EKINTZAK MARTXAN JARTZEKO HURRENGO

#### PAUSOAK ZEINTZUK DIREN AZALDU.

Azpibatzerdeetako ekintza guztiak aztertu ondoren, eta aurrera begira lan-metodo bat ezartze aldera, **hiru taldetan multzokatu ziren ekintzak**: udalari (batez ere) dagozkionak, azpibatzerdeek gehiago zehaztu eta landu beharrekoak (orokorregiak direlako), eta azpibatzerdeei (batez ere) dagozkienak.

Hedabideen azpibatzerde honen kasuan, gehiago landu eta zehaztu beharreko ekintza "Euskarazko hedabideen ekosistema indartu" izan zen, eta azpibatzerdeari (batez ere) dagozkion ekintzak "Hedabideetan euskararen kuota kualitatiboa eta kuantitatiboa aztertu eta inplementatu; solaskide euskaldunak ezagutarazi; euskara eta euskaldunon errealitatea adierazi, euskara bera hitz egiteko gaia izan dadin lan egin" izan ziren.

Proposatu da bi ekintza horiek lantzen hastea, eta emaitza irailaren erdian aurkeztu, urrirako aurreikusi den Aholku Batzordeko bilerara eraman ahal izateko.

#### 4.- GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK

Udalak aurrera eramango dituen ekimenak aurkeztu ondoren, solasaldia sortu da Euskarazko hedabideen ekosistema indartzearen inguruan. Hauek dira solasaldi horretako ondorio nagusiak eta ideia zehatz batzuk:

- Udaleko ordezkari euskaldunek lehen interbentzioak euskaraz egitea.
- Udalak publizitate instituzionala euskaraz sartzea lehentasunez euskarazko hedabideetan.
- Udalak diskriminazio positiboa egitea euskararekin eta euskarazko hedabideekin (gehiagotan joan elkarrizketak egitera eta berba egitera).
- Udalaren Komunikazio Atalak agentziei esan udaleko nor egongo den zein komunikabide euskaldunetan, eta zeri buruz hitz egiten.
- Euskararen erabileraren eta presentziaren maiztasuna mantentzea.
- Gaur egun euskaraz gehien lantzen diren gaiez gain (kultura, umeak, gazteak), bestelakoak ere lantzen hasi (ekonomia, hirigintza).
- Udalak titularrak eta eskusibak euskaraz ere ematea euskarazko hedabideetan.
- Kalitatea babestu edukiaren aldetik (prentsaurrekoetako informazioa).
- Gaztelan lan egiten duten hedabideetan, langile euskaldunak egon daitezela, eta erakuts dezatela testuingurua elebiduna dela.
- Titularra, eskusiba edo albistea euskarazko hedabideetan izan denean, iturria aipatu.
- Udalak gai honetan hartzen dituen aurrera begirako erabakiak eta aldaketak Udalaren entitate guztietara zabaldu (Arriaga Antzokia, Bilbao Kirolak, artea...).
- Aztertu zelan jar daitezkeen harremanetan Bilboko euskaldunak eta hedabide euskaldunak, zelan egin zubi hori, zer egin hori lortzeko.

Aurreko guztiarekin batera, azpibatzerde honetan dauden komunikabide guztiei epe bat ematea proposatu da, gaiaren inguruan izan ditzaketen ideiak eta ekarpenak bidaltzeko, euskararen ekosistema indartze aldera, eta Aholku Batzordera proposamen zehatz modura eramateko.

Ekarpenak eta ideiak bidaltzeko epea ekainaren 15ean amaituko da. Ekarpen guztiak azpibatzerde honetako kide guztiei bidaliko zaizkie eta arretaz aztertuko ditugu irailean egingo den (data zehatza aurrerago jakinaraziko da) azpibatzerde honen hurrengo bileran.

Bilbon, 2017ko maiatzaren 31n